



BETERRIKO AIURRI ALDIZKARIEN ARGITALPENA DIRUZ **LAGUNTZEKO HITZARMENA**

Andoainen, 2020ko ekainaren 9an.

ELKARTURIK

Alde batetik, Maider Láinez Lazcoz andrea, 15978881E zenbakiko nortasun agiria duena, Andoaingo alkate gisa diharduena Andoaingo Udala bera ordezkatzuz, 2020ko maiatzaren 22an Tokiko Gobernu Batzarrak harturiko erabakia betearazteko xedez.

Bestetik, Jon Ander Ubeda Goikoetxea jauna, nortasun agiria 72.449.380-R zenbakikoa duena, Erroitz Baltzu Mugatuko kontseilari-ahaldun den aldetik eta baltzu hori ordezkatzuz ondorio guztietarako bere jardun-arauetako 14. artikulua ematen dizkion eskuduntzez ahalmendurik.

Bi aldeek elkarri aitortu diote badutela elkar behartzen dituen egintza honetan parte hartzeko nahikoa legezko ahalmen, eta hala egiten dute jarraian zehazturiko aurrekarien haritik:

AURREKARIAK

LEHENENA.- Manuel Larramendi Kultur Bazkunak (aurrerantzean MLKB) eta Andoain, Amasa-Villabona, Zizurkil, Asteasu, Aduna eta Larraulgo Udalek 1993ko abenduaren 23an Villabonan sinatu zuten hitzarmenaren bitartez AIURRI izeneko aldizkaria sortu zuten Beterrri-Aiztondo eskualde osorako, horren xedea izanik aipatu herrietako eta eskualdeko tokiko informazioa landu eta ezagutzera ematea. Delako Aiurri aldizkariak 1994. urtean eman zuten argitara 0 zenbakia eta, geroztik, etenik gabe argitaratu da, egun arte, hamabostean behin, hots, urtean 22 zenbaki inguru plazaratuz.

Aipatu hitzarmenak xedatuaren arabera, aldizkariaren jabetza MLKB-aren esku gelditu zen eta udal sinatzaileek, batetik aldizkariak euskararen erabilera suspertu eta normalizatzeko izan zezakeen eragin nabarmenagatik eta, bestetik, tokiko informazioa bultzatu eta indartuz eskualdeko herritarren garatzeko ezinbesteko tresna gertatzen zelako, argitalpenak eduki zezakeen mentsa estaltzeko borondatea azaldu zuten, beti ere urtean urteko alde guztien egoera ekonomikoaren eta aurrekontu ahalmenaren arabera.

Geroztik, 26 urtez, udal horiek guztiek Aiurri argitalpena diruz lagundu dute, bakoitzak neurri ezberdinean, Udal horiek emandako dirulaguntzekin osatutako guztizkoaren (61.851,00 euro) % 32,3 Andoaingo Udalak ordaintzen duelarik, 2018ko kitapenaren arabera.

2004. urtean, gainera, MLKB-k urrats berria eman zuen eta Andoain eta Urnietan Aiurri izeneko astekaria sortu zuen. Geroztik, andoaindarrek bi argitalpen elkarren osagarri jasotzen dute beren etxeetan, bat hamabostean behin eta, bestea, astero. Astekari horren finantzaketarako dirulaguntza ematen dute aipatutako bi udalek, bien arteko dirulaguntzekin osatzen den guztizkoaren (73.100,00 euro) % 50,75 Andoaingo Udalak jartzen duelarik, 2018ko kitapenaren arabera.

26 urtez jasotako dirulaguntzari esker lortu da, eskualdeko 1.500 familietara hamabostean behin euskarazko argitalpena eramatea, Andoaini dagokionez astero 800 familia ingurura eta horrek, zalantza izpirik gabe, herri onura itzeleko eragina izan du, hala tokiko prentsa garatzeko orduan, nola horren bitartez herriko eta eskualdeko bizitza eta jarduna suspertzeko garaian eta, oso bereziki, euskararen erabilerarekiko eta irakurtzaletasunarekiko atxikimendua indartzerakoan.

BIGARRENA.- 2004. urtean MLKB-ak Erroitz izeneko baltzu mugatua sortu zuen, baltzu horren xede nagusia izanik euskarazko hedabide eta iragarbideak sortu, kudeatu eta garatzea, eta, horien artean, Aiurri izenburuko argitalpen guztiak eta MLKB-ak argitara zitzakeen gainerakoak ekoiztea. Geroztik, hamar urtez, Aiurri aldizkariak MLKB-ak argitara eman dituen arren, horien ekoizpena Erroitz Baltzu Mugatuak egin du, horren kostua MLKB-ari fakturaturaz.

Erroitz baltzua izan da, gainera, Aiurri argitalpenak papereko euskarritik euskarri digitalera eta ikusentzunezkora eraman dituen, hedabidearentzat hil ala bizikoa gertatzen ari den bilakaera bati helduz eta argi adieraziz euskarazko kazetaritzaren etorkizuneko erronka sare digitalean gertatzen ari den bilakaera gero eta bizkorragoari eutsi ahal izatea dela.

Erroitz Baltzu Mugatuaren esku utzi zuen 2014. urtetik aurrera Aiurri izenburuko argitalpen eta ekoizkin guztiak argitaratzeko ardura eta eskubideak. Horretarako, hitzarmena sinatu zuten MLKB-ak eta Erroitzek 2013ko abenduaren 17an, zeina hitzarmen honi I eranskin gisa gehitu zaion.

HIRUGARRENA.- Manuel Larramendi Kultur Bazkuna herri onurako elkarte da, Eusko Jaurlaritzak izendaturikoa maiatzaren 201eko 105/2003 Dekretuaren bitartez.

LAUGARRENA.- Erroitz Baltzu Mugatua, esan bezala, MLKB-k bere helburuetarako sorturiko enpresa da, irabazteko asmoa duena, eta % 100ean Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren jabetzakoa. Kudeaketaren ardura nagusia duen bertako Kontseilari ahalduna ere MLKB-aren Biltzar Nagusiak izendatzen du. Erroitz, B.M.aren irabaziak, halakorik dagoenean, MLKB-ak jasotzen ditu bere jarduerari aurre egin ahal izateko, besteak beste Aiurri egitasmoari. Horrenbestez, Erroitz, B.M.aren irabaziak herri onura dute helburu. Hitzarmen honi gehitu zaizkio, II. Eranskin gisa, Erroitz, baltzu mugatuaren sorrera eskritura eta estatutu edo jardunerako arauak.

BOSGARRENA.- Andoaingo Udaleko Euskararen Normalizaziorako Lansailak 26 urtez Aiurri aldizkariaren argitalpena diruz lagundu ondoren, etorkizun hurbileko erronkatzat jotzen du aipatutako euskarazko hedabideari eusten jarraitzea, eta aitortu ere hala aitortzen du iraunaldia luzaturik indarrean jarraitzen duen Andoaingo Euskararen Erabilera Biziberritzeko Plan Nagusiko 9. atalean (2011-2017), hedabideen alorrean euskararen erabilera zabaltzeko eta sendotzeko irizpide nagusiak finkatzeko garaian.

SEIGARRENA.- Andoaingo Osoko Udaltzako, 2014ko martxoaren 27an egin zuen batzarraldian, dirulaguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantza onartu zuen, baita dirulaguntza horiek banatzeko plangintza estrategikoa ere, eta dirulaguntza horien artean Euskararen Normalizaziorako alorrari dagozkionak jasota daude. Aipatu ordenantzako 7. artikulua dirulaguntzen esleipena arautzeko bi bide ezarri ditu: norgehiagoka bidezkoa eta esleipen zuzeneko. Bat dator, horrela, dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege orokorrak, azaroaren 17koak, esleipen bideei buruz agindutakoarekin. 38/2003 Lege orokorrak bere 22. eta 28. artikuluetan agindutakoarekin bat etorritik, Andoaingo Udalaren Udal Ordenantzak, bere 11. artikuluan dirulaguntzen zuzeneko emakida arautzen du, ahalbidea emanez dirulaguntzak zuzenean onuradunari emateko udal aurrekontuan izenez esleiturik daudenean, hala esleitzen direnean edota herri onura nabarmeneko ekimen eta jarduerak direnean.

ZAZPIGARRENA.- Aiurri argitalpenak MLKB-ak, Andoaingo Udalak eta Beterri-Aiztondoko gainerako udalek elkarlanean gauzaturiko ekimena da, 26 urtez garatu dena, gisa berekorik, hots, euskara hutsezko tokiko hedabide gisakorik ez duena udalerrian bertan. Horrenbestez, herri onurako bere izaera guztiz bakana eta apartekoa da, urteetan udal aurrekontuan bere dirukontu izenduna eduki duena eta zuzeneko emakida bidez esleitzeko aipatu legediak ezarritako baldintza guztiak betetzen dituena, etorkizunean norgehiagoka bidera jo beharrenden kalterik gabe, eskualdean xede bereko bestelako eskatzaile edo ekimenik sortuko balitz.

ZORTZIGARRENA.- Ana Carrere Zabala andreak, Andoaingo Udalaren izenean, eta Jon Ander Ubeda Goikoetxea jaunak, Erroitz Baltzu Mugatuarenean, 2014ko uztailaren 9an Beterriko Aiurri aldizkariaren argitalpena 2014. urtean zehar diruz laguntzeko hitzarmena sinatu zuten. Geroztik, urtero berretsi dute bi aldeek aipatutako hitzarmena.

BEDERATZIGARRENA.- 2020. urte osoan zehar AIURRI aldizkaria argitaratzeko Erroitz baltzu mugatuak aurkeztuak dizkio Andoaingo Udalari gastu eta dirusarreraren aurrekontuak, horietan aurreikusten baita zein den ekimenaren autofinantzaketa maila, zein ekimenak sortuko duen defizita eta zein herri erakunde guztien artean egin beharreko ekarpena. Horrela, bada, aipatu datuak 2020. urterako ondokoak dira:

AIURRI hamaboskaria:

- Autofinantzaketa maila: % 33.
- Herri erakundeek estalitako defizita: 102.350,00 € (aurrekontuaren % 67).

AIURRI astekaria:

- Autofinantzaketa maila: % 29,7.
- Defizita: 122.100,00 € (aurrekontuaren % 70,3).

Aurrekari horiek guztiak aintzakotzat izanik, bi aldeek jarraian idatzitakoak hitzartu dituzte:



KLAUSULAK

LEHENA.- Hitzarmen honen xedea da Andoingo Udalaren eta Erroitz Baltzu Mugatuaren arteko lankidetzaren esparrua finkatu eta arautzea, zehazki esparru horren baitan Aiurri izeneko argitalpenak 2020. urtean gauza daitezen.

BIGARRENA.- Hitzarmen hau indarrean izango da 2020ko abenduaren 31 arte. Hala ere, bi aldeak ados badatoz, eta bertan jasotakoa betetzen bada, hitzarmen hau urtero luza daiteke, betiere urtebeterako.

HIRUGARRENA.- Erroitz Baltzu Mugatuak Andoainen zabaltzen diren Aiurri izenburupeko bi aldizkariak argitaratuko ditu, bat etorritik Manuel Larramendi Kultur Bazkunarekin baltzu horrek indarrean duen hitzarmenean xedatuarekin (I eranskina). Bi aldizkariak elkarren osagarri izango dira, biak Andoingo udalerraren eremuari egokitutakoak.

Erroitz, b.m.-ak bere gain hartzen ditu MLKB-ak eta Beterri-Aiztondoko Udalek 1993-an sinatu zuten hitzarmenean Aiurri tokiko hedabidearentzat adierazitako xede eta helburu guztiak, nola baita ere kazetaritza eta komunikazio jardunari dagokion deontologiazko araudia ere.

Horrenbestez, Erroitz. b.m.-ak 2020. urtean 22 hamaboskari emango ditu argitara Beterri-Aiztondo eskualdeko herrietan eta 42 astekari Beterri-Buruntza eskualdeko Andoain eta Urnietan.

LAUGARRENA.- Aipatu bi argitalpenetako lehena, hots, hamaboskaria, ordainduriko harpidetza bidez banatuko du Andoainen argitaratzaileak eta astekaria, berriz, harpidetza ordaintzen dutenei banatzeaz gain, saltegi eta denda jakin batzuetan herritar orok eskuratzeko moduan jarriko du. Gainerakoan, argitalpenek 1993. urtean sinaturiko hitzarmenean finkaturiko ezaugarriei erantzuniko diete, hots, euskara hutsezkoak izango dira, tokiko informazioa izango dute oinarri eta arduraren handia izango dute gure gizarteko iritzi aniztasuna azaltzen.

BOSGARRENA.- Papereko euskarrian aipatu bi argitalpenak ekoizteaz gain, Internet sarean www.aiurri.eus argitalpen digitala urte osoan zehar argitaratuko du, egunero berrituz bertako edukia eta horren jarraitzaile sareak sortuz eta elikatuz Twitter, Facebook eta gisako beste gizarte sareetako egituren bitartez.

Argitalpen digitalaren kostu osoa, Aiurri hamabostekariaren eta astekariaren kontura egingo da, hainbatuz Buruntza aldeko edo Aiztondo aldeko informazio kopuruaren arabera, eta bi argitalpen horien kitapenean txertatuko da.

2020. urteko jarduerari buruz Erroitzek aurkezten duen oroitidazkian argitalpen digitalak duen jarraipen mailari buruz egon litezkeen datuak aurkeztu beharko ditu, Udaleko Euskara Zerbitzuak adieraziko dion neurgailu edo bitarteko estandarrez lorturikoak.

Halaber, 2015-2019 bitarteko bost urteetako aurrekontu likidatuetan Aiurriren bi argitalpenek dirusarrera eta gastuetan izan duten bilakaeraren berri ematen duen txostena egin eta entregatuko dio Erroitz BM-ak Andoingo Udalari. Zehazki honako elementuon gaineko informazioarekin osatuko da aipatu txostena, urtez urtekoa bereiziz: sarrerei dagokienez, bi aldizkariaren kasuetan publizitatearen eta harpidetzen sarrerak (herriz herri zehazturik) eta Eusko

Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzak eta, udalen dirulaguntzei dagokienez, hamaboskariaren kasuan 1993ko hitzarmena sinatu zuten sei udaletako bakoitzaren ordainketak eta, astekariarenean, bi udaletako bakoitzarenak, eta, baleude, bestelakoak; gastuei dagokienez, aski da, urtez urte eta aldizkariz aldizkari berezita bai, baina gastuen guztizko zenbatekoa adieraztea kontzeptuak elkarren artean bereziti beharrik gabe (pertsonala, inprenta, egoitzako funtzionamendu arrunta...).

SEIGARRENA.- Erroitz baltzu mugatuak Andoaingo Udalarengandik dirulaguntza eskuratzearekin batera, beharrezko diren kudeaketak egingo ditu bere defizita guztiz estaltzearen Beterri-Aiztondoko gainerako udalengandik behar adinako dirulaguntza lortzeko, hots, Amasa-Villabona, Zizurkil, Asteasu, Aduna eta Larraulgo Udalengandik, baita astekariari dagokionez Urrietako Udalarengandik ere. Dirulaguntza kopuru horiek udalerrri bakoitzak duen biztanle kopuruaren arabera kalkulatu dira defizita udalen artean banatzeko garaian, 1994. urteaz geroztik egin duen bezala.

Gainera, Erroitzek beharrezko diren kudeaketak egingo ditu Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza deialdietara aurkeztu eta bertatik bi argitalpenen defizita guztiz estaltzen lagunduko duen dirulaguntza eskuratzeko.

ZAZPIGARRENA.- Andoaingo Udalak, dirulaguntzak ematea arautzen duen udal ordenantzako 11.c) artikuluan xedatuaren ildotik eta aintzakotzat izanik aurrekarietan adierazitako guztiak, herri onurako izaera aitortzen dio Aiurri aldizkariak biltzen dituen egitasmoari eta, horrenbestez, Erroitz baltzu mugatuari zuzenean dirulaguntza emango dio 2020. urtean aipatu bi Aiurri aldizkariak argitara eman eta zabal ditzan udalerrian eta argitalpen digitalari euts diezaion. Dirulaguntza horren zenbateko osoa 57.100,00 €-koa da, honela banaturik:

- Beterri-Aiztondoko Aiurri hamaboskarirako 20.000,00 €
- Beterri-Buruntzako Aiurri astekarirako 37.100,00 €

Aiurri aldizkarirako aipatutako dirulaguntza hori Udal aurrekontuko 399 dirukontu izendunean zuzkituko da.

ZORTZIGARRENA.- Andoaingo Udalak emandako dirulaguntza Aiurri izeneko bi argitalpenek eta argitalpen digitalak sorturiko diru-galera edo defizita estaltzeko baizik ez da izango. Horrenbestez, Erroitz baltzu mugatuak Aiurri argitalpenen jardueran ezingo du, inolaz ere, diru-irabazirik izan, herri erakunde guztiengandik jasotako diru-laguntzen batura bere defizita berdintzeko baizik ez da izango. Bi argitalpen horien urteko diru-emaitzetan irabazirik izanez gero, Andoaingo Udalak emandako dirulaguntza izandako irabazien neurrian jaitsiko dio, gainerako dirulaguntzeekin hainbanaketa egin ondoren.

Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzua izango da, bere teknikari arduradunaren bitartez, seigarren klausula honetan xedaturikoa betetzen ote den egiaztatuko duena, horri buruzko txosten berri bakoitza eginez urteko dirulaguntza kitatzearekin batera.

BEDERATZIGARRENA.- Erroitz baltzu mugatuari eman beharreko dirulaguntza aztertu eta ebatzi aurretik, aipatu baltzuak jarraian adierazitakoak aurkeztuko dizkio Andoaingo Udalari:

- a).- 2020. urterako Aiurri hamaboskariari, astekariari eta argitalpen digitalari buruz Erroitz baltzu mugatuak burutu asmo duen jardunaren gaineko egitasmoa, non azalduko duen

jardun orokorraz gain zeintzuk diren aurreko urteekiko aipatu argitalpenetan izango diren berrikuntzak.

- b).- 2020. urtearen jardunari dagozkion gastu eta dirusarrera guztien aurrekontuak, gastuak atalka sailkatuz. Dirusarrerei dagokienez, herri erakunde zein erakunde pribatu guztiengandik jasotako dirulaguntzak eta ekoizkinen salmentatik jaso ditzakeen sarrera guztiak aurreikusi beharko ditu (harpidetzak, publizitatea...).
- c).- Erroitz Baltzu Mugatuaren IFZ-aren fotokopia.
- d).- Berariaz dirulaguntzei dagokienez, beste herri erakunde, sail, elkarte edo entitate pribatuei egindako dirulaguntza eskaeren edota jada jasota dauden berri emango duen zinpeko aitortpena.
- e).- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak bete izana egiaztatzen duten agiriak eta Andoaingo Udalarenak edo bere erakunde autonomoarenak bete izanari buruz eta dirulaguntzen lege orokorreko 13. artikuluan adierazitako inolako debeku-auzitan nahastuta ez egotea egiaztatzeko zinpeko aitortpena.

HAMARGARRENA.- Andoaingo Udalak ebatziriko dirulaguntza hiru txandatan ordainduko da:

Dirulaguntzaren %60a, hots, 34.260,00 €, hitzarmen hau Tokiko Gobernu Batzarrak onartu eta Udaleko alkateak sina dezanean.

Dirulaguntzaren % 30a, hots, 17.130 €, Erroitz baltzu mugatuak 2020ko irailaren 30 arteko gastu eta dirusarrera guztien kitapena aurkeztu eta Tokiko Gobernu Batzarrak hura onar dezanean. Aipatu kitapena abenduaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dute, honela gauzaturik:

- a).- Urteko jardunari eta aurreikusten ziren xede eta helburuak bete izanari buruzko txostena.
- b).- 2020ko irailaren 30 arteko gastu eta dirusarrera kitapena, Erroitzeko kontseilari ahaldunak egiazkotzat joz sinatuko duena.
- c).- Andoaingo Udalak emandako dirulaguntza kopurua adina gastu zurituko duten ordainagirien aldaki egiaztatuak.

Gainerako % 10a, hots, 5.710,00 euro, 2020. urte osoko (2020-01-01 / 2020-12-31) gastu eta dirusarreren kitapena aurkeztu, Euskara Zerbitzuko teknikari arduradunak dirulaguntzaren erlanketa izapidatzeko dagokion txostena egin eta Tokiko Gobernu Batzordeak onartzen duenean. Aipatuak urte osoko kitapena 2021eko otsailaren 15a baino lehen aurkeztu beharko da.

Hori guztia, dirulaguntzak ematea arautzen duen udal ordenantzako 23.c) artikulua dirulaguntza zuritzeko ezartzen duen bitartekoa erabiltzeko ahalbidearen kalterik gabe.

Dirulaguntzaren ordainketak Erroitz baltzu mugatuak adierazten duen kontu korrontean egingo ditu Andoaingo Udalak.

HAMAIKAGARRENA.- Gainera, Erroitz baltzu mugatuak Andoaingo Udalarekiko ondoren adierazitako betebeharrak izango ditu:

- a).- Aiurri hamaboskarian eta astekarian, nola baita argitalpen digitalean ere, Andoaingo Udalarengandik jasotako babesa aditzera emango du eta, alabaina, “andoaINDARRA euskaraz” deituriko logoa txertatuko du.
- b).- Andoaingo Udalaren esku argitaraturiko argitalpenen hiru ale jarriko ditu, bata Alkatezara igorriko dena; bestea Euskara Zerbitzura eta, azkenik, Udal Agiritegira.

HAMABIGARRENA.- Bi aldeek berariaz aditzera ematen dute Andoaingo Udalak dirulaguntza emanez ez duela inolako erantzukizun eta ardurarik hartzen, ez zuzenekorik ez zeharkako edo ordezkatzailearik, Erroitz baltzu mugatuak Aiurri aldizkariak argitaratuz burutzen duen jardueraren gainean, ez eta baltzu horrek buru dezakeen beste edozein jardunaren gainean ere.

Era berean, Erroitz baltzu mugatuak aditzera ematen du, hitzarmen honen bidez diruz laguntzen den jarduera burutzeko legeak ezarritako arau, baldintza eta betebeharrak oro betetzen duela, hala, oro har, tokiko hedabideen ekoizpenari dagozkionak nola, lehenik eta behin, bertako langile guztiei dagozkion lanbide eskubide eta betebeharrak eta segurtasun eta osasunari buruzkoak ere.

HAMAHIRUGARRENA.- Hitzarmen honetako seigarren klausularen ondorioetarako eta Euskara Zerbitzuko teknikari arduradunak aurkezturiko dirukontuen gainean egingo dituen txostenen kalterik gabe, Erroitz baltzu mugatuak urteko ekitaldian itxitako eta legeztatutako dirukontuak ikuskatzeko ahalbidea ematen dio Andoaingo Udalari, horrek hala nahiko balu egiazta dezan Aiurri argitalpenek ez dutela bere dirukontuetan irabazirik sortu.

HAMALAU GARRENA.- Hitzarmen hau bertan behera geldituko da:

- Sinatzaileak ados jarrita.
- Hitzarmenaren indarraldia amaitzen denean.
- Izenpetzen duen alderen batek hitzarmen honetan hartutako konpromisoak beteko ez baditu.
- Zuzenbidean egokia den beste edozein arrazoiengatik.

HAMABOSGARRENA.- Hitzarmen hau betetzen ez bada edota emandako dirua beste ezertarako erabiltzen bada ordainketak bertan behera geldituko dira eta jasotako dirua itzuli egin beharko du Erroitz Baltzu Mugatuak, Andoaingo Udalak xedaturik dituen eginbidearen eta lege arauari jarraiki.

HAMASEI GARRENA.- Hitzarmen honek izaera administratiboa dauka, eta araubide juridiko-administratiboa erabiliko da berau interpretatu eta garatzeko; izenpetzaileek berariaz men egiten diote administrazio auzietarako jurisdikzioari.

Hitzarmen honetan xedatzen ez diren alderdi guztietan Andoaingo Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen udal ordenantzak agindutakoari eta dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak agindutakoei egingo zaie men.

Eta goiko hamasei klausuletan xedatuarekin bat datozela adieraztearren, zazpi orrialdetan eta bi aletan idatziriko agiri hau irakurri eta sinatu dute goian azaldutakoek, ondorio bakar baterako, idazpuruko tokian eta datan.



Jon Ander Ubeda Goikoetxea



Mainer Laínez Lazcoz